

# ERROMAKO AITA FRANTZISKO

*Doinua: "Itsasoan urak haundi"*

**1**

Haundia eta apala  
trebea baizen leiala,  
gizon hau nor dan autortu baietz  
danok berehala.  
Ez begiratu azala,  
txikia eta argala;  
baina Frantzisko Aita Santua  
dogu mundiala.

**2**

Kristau izan nahiz indio  
adiskide, arerio...  
pertsona bada, danen gainetik  
berak dau balio.  
Jesusen ebanjelio  
bihotzetik bor-bor dario,  
danen lagun da, danen aita da  
aita Bergoglio.

**3**

Txikia eta meharra  
buru-bihotzez azkarra,  
goian ipini deusku Frantziskok  
Eleizaren marra.  
Eleiz ta bere indarra  
Gurutzea da bakarra..."  
Jesusen orde z gaur daukagun hau  
ez da mundutarra.

**4**

Frantzisko erromakoa  
munduz-mundu deika doa:  
"Aupa kristauak, urten kalera  
itziaz zokoa"  
Lo egin dogu nahikoa,  
hil ete jaku Jainkoa?  
Alkarri esku emonda goazen  
apaiz nahiz laikoa.

**5**

Erroman dogun artzaia  
zintzoa baizen alaia,  
guztioi opa deusku bizipoz  
eta onginahia.  
Honek bai ardi usaia!  
Prest dauka danontzat mahaia,  
berari esker, nunahi entzun da  
Jesusen kanpaia.

**6**

Kendu muga ta barrera,  
alkarri egin harrera,  
Jesusen jarrai Aita Santuak  
hasi dau karrera.  
Huskeriak gorabehera  
Aita bakarra bat bera,  
zabal bihotzak, luza eskuak  
jo daigun aurrera!

A. Martzel

